

ESKOLA KIROLA - SASKIBALOI ARAUDIA 2017-2018

	BENJAMINAK LH3-4	ALEBINAK LH5-6
JOKALARI KOPURUA	4 jokalarari	4 jokalarari
ALDAKETAK	Aldaketak atsedenal dietan bakarrik egingo dira, jokalariren batek min hartuz gero izan ezik. Kasu hauetan, gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da, baina ez da aktan apuntatuko.	
JOKA DAITEZKEEN ZATI KOPURUAK	Gehien eta gutxien jokatu duten jokalariren artean, gehienez zati baten aldean egon daiteke, (luzapenak barne). <i>Adibidez, taldekideren batek 6 zatiak jokatu baldin baditu, beste guztiek 5 zati jokatu behar dituzte.</i>	
IRAUPENA	7 minutuko 6 zati. (7 x 6)	
ATSEDENALDIAK	Minutu 1	
SAKEAK	Hasierako sakea salto da. Saskiraketen ondoren sakeak saskiaren behealdetik aterako dira. Partiduaren azken minutuan sakeak erasoko zelaian izango dira.	
PARTIDUKO AZKEN EMAITZA	Saskiraketa kopuruaren arabera. Berdinketak onartu egiten dira. Ez da hiruko punturik emango.	Saskiraketa kopuruaren arabera. Berdinketa dagoen kasuetan, 4 minutuko zatiak jokatu dira, irabazlea egon arte. <i>(Luzapenean aktan agertzen diren jokalariek jokaturako zati kopuruak kontutan izan behar dira).</i> Ez da hiruko punturik emango.
DEFENTSA	Onartutako defentsa bakarra indibiduala da. Edozein modutan jokoa eten ondoren (saskiratzea, faltak, baloia zelaitik irtetea...), defentsa norberaren zelaian hasiko da.	
FALTAK	Faltak ASKO pitatuko dira, falta egiteko ohitura mozte aldera. Falta bakoitzeko ez da tiro libre bat ahalbidetuko. Zati bakoitzeko, seigarren faltatik aurrera, tiro libre bat jaurtitzeko aukera ahalbidetuko zaie, erreboterik gabe eta baloi jabetza emanaz. Jaurtiketa librean kanasta azpitik 4 pausotara botako da.	Faltak ASKO pitatuko dira, falta egiteko ohitura mozte aldera. Falta bakoitzeko ez da tiro libre bat ahalbidetuko. Zati bakoitzeko, laugarren faltatik aurrera, tiro libre bat jaurtitzeko aukera ahalbidetuko zaie, erreboterik gabe eta baloi jabetza emanaz.
ZIGORRAK	Jokalarari batek 5 falta egiten baditu, kaleratua izango da eta bere ordez, ordurarte gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da <i>(aktan ez da apuntatuko)</i> . Kiroltasunik gabeko falta denean, jaurtiketa librean eta baloi jabetza ahalbidetuko zaizkio aurkariari.	
TXAPELKETA MODUA	Ez dago txapelketarik	Txapelketako irabazlea, kanporaketa bidez erabakiko da, final erdi eta finalekin.